

PROCEDIMIENTO Y REQUISITOS PARA LA OBTENCIÓN DE LA TARJETA DE ESTACIONAMIENTO PARA PERSONAS CON DISCAPACIDAD EN EL AYUNTAMIENTO DE IRURTZUN

Visto el informe de la sección de valoración del Departamento de Bienestar Social del Gobierno de Navarra de 30 de noviembre sobre el procedimiento y requisitos para obtener la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad, conocidas las recomendaciones del Consejo de la Unión Europea de 4 de junio de 1998, al objeto de unificar criterios, el baremo para determinar la existencia de dificultades de movilidad que impiden la utilización de transportes públicos colectivos, en tanto el Gobierno de Navarra no apruebe requisitos únicos para la obtención de las referidas tarjetas en toda la Comunidad Foral, resolvemos aprobar el procedimiento y los requisitos para la obtención de la tarjeta de estacionamiento para personas con discapacidad.

1º.- Procedimiento

Las/os interesadas/os en la obtención de la tarjeta deberán presentar instancia de solicitud acompañada de:

- Certificado acreditativo del grado de minusvalía que reflejará los puntos obtenidos en el baremo para determinar la existencia de dificultades de movilidad que impiden la utilización de transportes públicos colectivos, recogido en el anexo 3 del R.D. 1971/1999, de 23 de diciembre, página 3410.
- Fotografía tamaño carné.
- Fotocopia del documento nacional de identidad del discapacitado y, en su caso, del acompañante conductor.
- Fotocopia del permiso de circulación del vehículo o vehículos (máximo 2) que utiliza el discapacitado.
- Carné de conducir.

El baremo será aplicado por el Equipo de Valoración y Orientación del Centro Base de Minusválidos dependiente del Instituto Navarro de Bienestar Social.

La solicitud será analizada en la Comisión de Bienestar Social y Área de la Mujer del Ayuntamiento de Irurtzun.

En el caso de reunir los requisitos exigidos, desde el Ayuntamiento de Irurtzun se emitirá la tarjeta de estacionamiento.

Al menos trimestralmente, los concejales pertenecientes a la Comisión de Bienestar Social y Área de la Mujer analizarán todas las solicitudes y con la aprobación en Pleno dictará resolución en la que se recoja la aprobación de todas las tarjetas desde la anterior resolución. Igualmente, dictará resolución motivada de las denegaciones.

2º.- Requisitos

- 1- Tener reconocido un grado de minusvalía de igual o superior al 33%.

- 2- Ser mayor de 3 años.
- 3- No encontrarse, por razón de su estado de salud u otras causas, imposibilitado para efectuar desplazamientos fuera de su domicilio habitual.
- 4- Encontrarse incluido dentro de alguna de las siguientes situaciones:
 - 4.1 Personas con discapacidad incluidas en los apartados A o B del baremo y que son propietarios y conductores de un vehículo, generalmente adaptado a sus limitaciones funcionales.
 - 4.2 Personas con discapacidad que la suma de las puntuaciones D, E, F, G y H del baremo alcancen una puntuación igual o superior a 7 puntos, y que sean propietarios y conductores del vehículo.
 - 4.3 Personal que acompañe o transporte a personas con discapacidad y que están incluidas en el apartado 4.1, que sean menores de 65 años y que no sean conductoras del vehículo.

La valoración del grado de minusvalía, siguiendo las normas publicadas en el R.D. 1971/1999, de 23 de diciembre, se basa en la determinación de las deficiencias permanentes, que son aquellas alteraciones orgánicas o funcionales que no son recuperables, es decir, sin posibilidad razonable de restitución o mejoría de la estructura o de la función del órgano afectado. Por ello, las tarjetas de estacionamiento serán otorgadas con carácter definitivo a excepción de aquéllas en las que en su tramitación en el informe médico se indique lo contrario reflejando en ese caso su ámbito temporal que en ningún caso será inferior a 6 meses.

No obstante, al objeto de garantizar el control administrativo, las tarjetas tendrán una caducidad de 5 años. Transcurriendo dicho periodo se deberá solicitar una nueva tarjeta siendo suficiente la solicitud para la renovación automática si no han cambiado las condiciones para la obtención de la tarjeta anterior.

Las tarjetas de estacionamiento sólo se podrán utilizar y serán válidas cuando la persona discapacitada se desplace en el vehículo. El uso de la tarjeta en ausencia de la persona discapacitada supondrá su retirada automática y la imposibilidad de la obtención de futuras tarjetas, sin perjuicio de las sanciones correspondientes.

Los adjudicatarios de tarjetas tendrán la obligación de notificar cualquier modificación de las condiciones exigibles para la obtención de la tarjeta al objeto de su renovación o anulación según proceda. La no notificación de las modificaciones será motivo de la retirada automática de la tarjeta y la imposibilidad de la obtención de futuras tarjetas, sin perjuicio de las sanciones correspondientes.

Las tarjetas actualmente en vigor serán válidas hasta su renovación, debiendo en ese momento ajustarse a los requisitos aquí aprobados para su consecución.

3º.- Baremo

A) Usuario o confinado en silla de ruedas.

B) Depende absolutamente de dos bastones para deambular.

C) Puede deambular pero presenta conductas agresivas o molestas de difícil control, a causa de graves deficiencias intelectuales que dificultan la utilización de medios normalizados de transporte.

	No tiene dificultad	Limitación leve	Limitación grave	Limitación muy grave (no puede)
D) Deambular en terreno llano.	0	1	2	3
E) Deambular en terreno con obstáculos.	0	1	2	3
F) Subir o bajar un tramo de escalera.	0	1	2	3
G) Sobrepassar un escalón de 40 cm.	0	1	2	3
H) Sostener en pie una plataforma de un medio normalizado de transporte.	0	1	2	3

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente Reglamento fue aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Irurtzun, en Sesión celebrada el 6 de noviembre de 2007.

Irurtzun, 8 de septiembre de 2007.

EL SECRETARIO,

IRURTZUNGO UDALA. EZGAITASUNA DUTEN PERTSONEI APARKATZEKO TXARTELAK EMATEKO PROZEDURA ETA BALDINTZAK

Ikusirik Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizate Departamentuaren Balorazio Atalak azaroaren 30ean eginiko txostena, ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartelak emateko prozedura eta baldintzak arautzen dituen, ikusirik Europar Batasuneko Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an emandako aholkuak eta, irizpideak bateratu nahian, ezintasuna duten pertsonen garraio publiko kolektiboak erabiltzea eragozten dien mobilitateko zailtasunik ba ote duten zehazteko ezarritako baremoa. Kontuan harturik Nafarroako Gobernuak Foru Erkidegoan aipatu txartelak eskuratzeko baldintzak ez dituela oraindik onetsi, Irurtzungo Udalak honakoa erabaki du: ezintasuna duten pertsonen aparkatzeko txartela eskuratzeko prozedura eta baldintzak onestea.

1. Prozedura

Txartela eskuratu nahi dutenek eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Minusbaliotasun-maila egiaztatzen duen ziurtagiria, garraio publiko kolektiboa erabiltzea eragozten dion mobilitateko zailtasunik ba ote duen zehazteko ezarritako baremoa dela medio lorturiko puntuak adierazten dituen (1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinean bildua, 3410 orrialdea).
- Karnet tamainako argazki bat
- Minusbaliatuaren nortasun agiri nazionalaren fotokopia eta, hala denean, gidari laguntzailearena.
- Minusbaliatuak erabiltzen duen ibilgailuaren edo ibilgailuen (gehienez ere, bi) zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- Gidabaimena

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren menpeko Minusbaliatuen Oinarrizko Zentroko balorazio eta orientazio taldeek ezarriko dute baremoa.

Eskariak Irurtzungo Udaleko Gizarte Ongizatearen eta Emakumeen Batzordeak aztertuko ditu.

Ezarritako baldintzak betez gero, Irurtzungo Udalak aparkatzeko txartela emango du.

Gutxienez ere, hiru hilabetetik behin bilduko dira Gizarte Ongizate eta Emakumeen Batzordeko zinegotziak aurkezturiko eskariak aztertzeko, eta alkateak ebazpena emango du aurreko ebazpenetik aurrera aurkezturiko txartelak onesteko, Osoko Bilkuraren onespenerekin. Halaber, ebazpen arrazoitua emango du, ukatutako eskariak ez onartzeko arrazoiak adieraziz.

2. Baldintzak

- 1- %33ko minusbaliotasuna edo handiagoa frogatua izatea.

- 2- 3 urtetik gorakoa izatea.
- 3- Osasun arazoengatik edo bestelako arrazoiengatik bere ohiko bizilekutik joan-etorriak egiteko ezgaiturik ez egotea.
- 4- Aparkatzeko txartela eskuratu dezaketen pertsonak:
 - 4.1 Baremoko A edo B ataletan sartuta dauden pertsona minusbaliatuak, gehienetan beren ezintasun funtzionalari egokitua dagoen ibilgailu propioa gidatzen dutenak.
 - 4.2 Baremoko D, E, F, G eta H ataletan ateratako puntuazioen batuketa eginda 7 puntu edo gehiago lortzen dituzten pertsona minusbaliatuak eta ibilgailuaren jabe eta gidari direnak.
 - 4.3 4.1. atalean sartuta dauden pertsona minusbaliatuak lagundu edota garraiatzen dituztenak, baldin eta 65 urtetik beherakoak badira eta ibilgailua gidatzen ez badute.

Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuari jarraikiz, minusbaliotasun maila ezartzeko orduan behin betikoak diren ezgaitasunak hartzen dira kontuan. Behin betiko ezgaitasunak dira oneratu ezin daitezkeen ezintasun organikoak edo funtzionalak, hau da, ukitutako organoa lehenagoratzeko edo haren egitura edo funtzioa hobetzeko arrazoizko aukerarik ez dutenak. Hori dela eta, aparkatzeko txartelak behin betikoz emango dira, medikuaren txostenak aurkakoa esaten duenean izan ezik. Horrelakoetan, epe jakin baterako dela adieraziko da txartelean eta epe hori ez da, inolaz ere, sei hilabetetik beherakoa izango.

Nolanahi ere, administrazioaren kontrola bermatzearen, bost urtetik behin berrituko da txartela. Epe hori amaiturik, txartel berria eskatu beharko da. Txartela automatikoki berrituko da. Horrek ez du deusetan ukatzen ezgaitasunaren balorazio aldaketak indarraldia lehenago amaitzea. Aparkatzeko txartela titularra ibilgailuan garraiatzen denean edo minusbaliatuak gidatzen duenean bakarrik erabiltzen ahal da. Arau hori ez betetzeak txartela kentzea ekarriko du berarekin eta titularrak galduko du aurrerantzean txartela eskuratzeko eskubidea, dagozkion isunak jartzea eragotzi gabe.

Txartela eskuratzeko ezarritako baldintzak aldatuko balira, eskatzaileak Udalari horren berri eman beharko dio txartela berritu edo indargabetzeko, hori bidezko bada. Udalari aldaketen berri ez emateak txartela automatikoki kentzea ekarriko du berarekin eta aurrerantzean txartela eskuratzeko bidea itxiko, dagozkion isuna jartzea eragotzi gabe.

Indarrean dauden txartelak berritu arte erabiltzen ahal dira. Berritzea agiri honek onetsitako baldintzei jarraikiz egin beharko da.

3. Baremoa

- A) Aulki gurpilduna erabiltzen du derrigorrean.
- B) Ibiltzeko, bi eskumakil erabiltzen ditu derrigorrean.
- C) Ibil daiteke, baina kontrolatzeko zailak diren jokaera oldakor edo gogaikarriak agertzen ditu; urritasun psikiko larrien ondorioz, garraio-bide normalizatuak erabiltzeko zailtasunak ditu.

	Ez du zailtasunik	Ezgarritasun arina	Ezgarritasun larria	Ezgarritasun oso larria (ezin du)
D) Eremu lauan ibiltzea	0	1	2	3
E) Oztopoak dituen eremuan ibiltzea	0	1	2	3
F) Eskailera tarte bat igo edo jaistea	0	1	2	3
G) 40 cmko eskailera maila bat igotzea	0	1	2	3
H) Garraio-bide normalizatu baten plataforman zutik egotea	0	1	2	3

DILIGENTZIA: Araudi hau Irurtzungo Udalak, 2007ko azaroaren 6an egin osoko bilkuran, araudi hau onetsi zuela jasota uzteko.

Irurtzun, 2007ko irailaren 8a.

IDAZKARIA